



**ALDI BATEKO EGONALDIAK EGOITZETAN MENDEKOTASUNA ETA DESGAITASUNA DUTEN
PERTSONENTZAT
(Atsedenetarako eta aukera pertsonalekoetarako egonaldietarako aplikagarria bakarrik)
2026 URTEA**

1. MENDEKOTASUN MAILA ETA ORIENTAZIOARI DAGOZKIEN BETEBEHARRAK

- MENDEKOTASUN-EGOERA (I. gradua MBBn edo goragokoa)
- Aldi baterako egonaldirako plazarako gai izateko orientatua izatea, honako hauen bidez:
 - Adineko pertsonentzako aldi baterako egonaldietarako orientazio-eskaera (lehengo RAI), egungo egoera islatzen duena (gutxi gorabehera, bi urteko balioa, betiere egoera aldatu ez bada).
 - Desgaitasuna duten pertsonentzako aldi baterako egonaldietarako baliabiderako orientazio-eskaera.

2. EGONALDIEN DATAK:

Egonaldiak kanpainen barruan edo kanpainetatik kanpo egin ahal izango dira, eta bakoitzak baldintza desberdinak izango ditu, aurrerago jasotzen den bezala.

Urtarrilaren 12tik martxoaren 29ra arte	Kanpainetatik kanpo
Martxoaren 30etik apirilaren 13ra arte	ASTE SANTUKO KANPAINA
Apirilaren 13tik ekainaren 14ra arte	Kanpainetatik kanpo
Ekainaren 15etik irailaren 15era arte	UDAKO KANPAINA
Irailaren 16tik azaroaren 29ra arte	Kanpainetatik kanpo
Azaroaren 30etik urtarrilaren 11ra arte	ABENDUKO ETA GABONETAKO KANPAINA (abenduko zubia eta gabonetako aldia honen barne daude)



3. EGONALDI MOTAK ETA ESKAERAK EGITEKO MODUA:

Aldi baterako egonaldien programan sartzeko eta edozein motatako egonaldiak egiteko, **BI** eskabide mota izapidetu behar dira:

- **ZERBITZUAN ONARTZEKO** eskaera. Eskaera bakarra da. Ebazpena positiboa bada, pertsonak egonaldi-eskaera zehatzak egin ahal izango ditu. Oro har, urte hasieran egiten da, baina urteko edozein unetan egin daiteke, egonaldia eskatu aurretik edo aldi berean.

- **EGONALDIA** eskatzea. Pertsona zerbitzuan onartu ondoren, eskatzaileak EGONALDI-ESKAERA egin beharko du. Egonaldi labur edo luze bakoitzeko eskaera bat egin beharko da. Onarpen-urtean, egonaldiak eskatu ahal izango dira hurrengo urteko urtarrilaren 31ra arte.

EGONALDI LUZEAK	<p>- Egonaldi luzeak hamabostaldi naturaletan egingo dira, orientazio gisa</p> <p>- Urtean bi hamabostaldi eskatu ahal izango dira. Ezin dira jarraian egin eta gutxienez 15 egun igaro behar dira bien artean. Hala ere, salbuespen gisa eta plaza-kopuruaren arabera, kanpainetatik kanpo hilabete osoko egonaldia egitea baloratu ahal izango da.</p> <p>- Hilabete bakoitzeko lehen edo bigarren hamabostaldia eskatu ahal izango da. Kanpainatik kanpo, salbuespen gisa, eta plazarik izanez gero, ez da beharrezkoa izango egonaldia hilabete bakoitzeko lehen edo bigarren hamabostaldiarekin bat etortzea.</p> <p>- Urtean zehar hilabete bakarra egin ahal izango da.</p> <p>-Kanpainetan (Aste Santua, Uda eta Abendua eta Gabonetan) hamabostaldi bakarra eskatu ahal izango da kanpaina bakoitzean.</p> <p>-Eskaerak aurkezteko aurrerapena: Kanpainetatik kanpo 20 egun naturaleko aurrerapenarekin eskatu beharko dira. Kanpainaldietan egonaldiak eskatzeko data bereziak ezartzen dira, 5. puntuan (KANPAINA BARRUKO EGONALDIAK IZAPIDETZEKO EPEAK) jasotzen direnak .</p> <p>-Eskaerak egiteko lekua: Udal Gizarte Zerbitzuetan</p> <p>-Eskaera aurretik egin izanak ez du plazarik bermatzen; izan ere, plaza duen ala ez gehienez 15 eguneko aurrerapenarekin egiaztatuko da (udako kanpaina izan ezik, egonaldia lehenago baieztatzen saiatuko baita).</p>
------------------------	--



EGONALDI LABURRAK	<p>-2 eta 5 gau bitartekoak dira (ez dute zertan asteburuarekin bat etorri).</p> <p>- Kanpainetatik kanpoko aldietan bakarrik eskatu ahal izango dira. **Salbuespen gisa, kanpaina-aldietan egin ahal izango dira, baldin eta plazarik badago, eta ez dute, inola ere, lehentasunik izango egonaldi luzeen aurretik.</p> <p>-Eskaerak aurkezteko aurrerapena: 15 egun natural.</p> <p>-Eskaerak egiteko lekua: Udal Gizarte Zerbitzuetan edo, programan onartuta izan ondoren, sendianegonaldiak@gipuzkoa.eus helbide elektronikoan edo 943.11.25/943.11.25.26 telefono zenbakietan.</p> <p>- Eskaera aurretik egin izanak ez du plazarik bermatzen; izan ere, plaza duen ala ez gehienez 7 eguneko aurrerapenarekin egiaztatuko zaio.</p>
--------------------------	---

Hilabete berean ezin izango da egonaldi luzea eta laburra eskatu, ezta bi egonaldi labur ere.

Sarrera edo/eta irteera: litekeena da hauek bat ez etortzea hilaren 1ean, 15ean edo azken egunarekin (jaieguna edo asteburu bada edo zentroaren antolaketaren arabera)

4.EGONALDIAK EGITEKO ERABILIKO DIREN EGOITZAK:

PLAZA MOTA	EGOITZAK
Adineko pertsonak (unitate psikogeriatrikoa behar ez dutenak)	Donostia-Txara 2 Ordizia - San Jose
Unitate psikogeriatrikoa behar duten adineko pertsonak	Donostia - Julian Rezola Arrasate - Aita Menni
Desgaitasuna duten pertsonak	Donostia - Villa Sacramento Donostia-IZA

Dagoen eskaria zentro horietan dagoen plaza kopurua baino handiagoa bada, Gipuzkoako **beste zentro** batzuetan plazak izateko aukera baloratu ahal izango da eta bizilekutik hurbil egotea sustatuko da.

5.KANPAINA BARRUKO EGONALDIAK IZAPIDETZEKO EPEAK

ASTE SANTUA (Martxoaren 30etik apirilaren 13ra bitarteko aldia)	
	Eskatzaileek eskaera udaleko erregistroan aurkezteko azken eguna
	Otsailak 20



UDA (Ekainaren 15etik irailaren 13ra bitarteko aldia)	
	Eskatzaileek eskaera udaleko erregistroan aurkezteko azken eguna
EKAINA	Maiatzak 5
UZTAILA	Maiatzak 12
ABUZTUA	Ekainak 5
IRAILA	Uztailak 10
ABENDUA ETA GABONAK (Azaroaren 30etik urtarrilaren 11ra bitarteko aldia)	
	Eskatzaileek eskaera udaleko erregistroan aurkezteko azken eguna
1.EPEALDIA Azaroaren 30etik abenduaren 14ra	Urriak 23
2.EPEALDIA Abenduaren 14tik 28ra	
3.EPEALDIA Abenduaren 28tik urtarrilaren 11ra	

6. ALDI BATEKO EGONALDIEN KUDEAKETARI BURUZKO OHAR OROKORRAK.

- Sarrerak eta irteerak **modu mailakatuan** egin ahal izango dira, zentroaren beharren arabera eta erabiltzaile guztiei eta haien familiei harrera egokia egin ahal izateko.
- **Irteera data:** alta eguna da eta goizez izan ohi da. Egun horretan ez dago barne gaua igarotzea.
- **Sarrerak ezin izango dira egin asteburuetan edo jaiegunetan.**
- Jasotako eskabideek **plaza erabilgarrien kopurua gaindituko balute**, lehentasuna emango zaie bizilekuan dauden eta **egoitzan plaza iraunkorrik eskatu ez duten erabiltzaileei.**
- Eskaera guztiei erantzun ezin zaienean, **egonaldi luzei emango zaie lehentasuna**, laburren aurretik.
- **Psikogeriatria unitateko egonaldietarako oso plaza gutxi** egon ohi dira. Profil hori duten erabiltzaileek, eskaera egin ahal izango dute, baina ezin izango da bermatu egonaldia eskatutako zentroan eta datetan egingo denik.



- Desgaitasuneko egonaldietarako oso plaza gutxi egon ohi dira. Profil hori duten erabiltzaileek, eskaera egin ahal izango dute, baina ezin izango da bermatu egonaldia eskatutako zentroan eta datetan egingo denik.
- **Ezin da bermatu** egonaldia eskatutako zentroan eta egunetan izango denik.
- Egonaldi bati buruzko aldeko ebazpenik ez dagoen bitartean, ez da egonaldi horretarako eskubiderik sortuko.
- **Atzera egiteak edota uko egiteak**: Egonaldia behar ez bada, ahalik eta azkarren abisatu, **izaera ekonomikoko ondorioak** izan ditzakeelako.
- Programaren helburuen artean, ez dago zaintzaile formalen lan eskubideak bermatzea.
- Egonaldiak gela bikoitzean edo banakakoan egin ahal izango dira, zentroaren beharren eta plaza kopuruaren arabera esleituko direnak.
- Pertsonak gai dela adierazten duen RAI balorazioa izateak ez du automatikoki aldi baterako egonaldietarako eskubiderik ematen.

GOGORARAZTEN DA:

Aldi baterako egonaldien kudeaketa, Gipuzkoako Lurralde Historikoan mendekotasun-egoeran dauden pertsonentzako aldi baterako egonaldien egoitza-zerbitzua arautzen duen apirilaren 21eko 12/2015 Foru Dekretuan xedatutakoaren arabera egiten da, baita Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren eremu soziosanitarioko egoitza-zentroetan COVID-19 zaintza- eta kontrol-protokoloetan ezarritakoaren arabera ere.

Etxean Laguntzeko Atala. Zainketetako eta Gizarte Politiketako Departamentua